

Urteko 7. Igandea (C)

LEHENENGO IRAKURGAIA

Dios ha puesto hoy en tus manos a tu enemigo. Nadie que intente matar al rey escogido por el Señor quedará sin castigo.

Samuel lehenengo liburutik 26,2. 7-9. 12-13. 22-23

Saul Zif basamortura jaitsi zen, orduan, Israelgo hiru mila gizon aukeratu berekin zituela, Daviden bila.

Heldu ziren, bada, gauez David eta Abixai Saulen gudarostea zegoen tokira. Saul, kanpalekuaren erdian etzana, lotan aurkitu zuten eta lantza lurrean sartua bere buru ondoan. Abner eta gainerako jendea erregearen inguruan zeuden lo.

Abixaik esan zion Davidi:

–Jainkoak zeure esku jarri dizu gaur etsaia. Uztazu lantza-kolpe batez lurrari josten; ez dut birritan jo beharrik izango.

Davidek ihardetsi zion Abixairi:

–Ez hil! Ez litzateke zigorrik gabe geldituko Jaunaren gantzutuari eskua erantsiko liokeena.

Hartu zituen, beraz, Davidek Saulen buru ondoan zegoen lantza eta ur-antoxina, eta alde egin zuten biek. Ez zituen inork ere ikusi, ez sumatu. Ez zen inor ere itzarri. Lo zeuden denak, Jaunak emaniko logaleak harturik.

David beste aldera joan eta, urrunean, mendi-gailurrean gelditu zen, etsaien eta beren artean tarte handia utzirik.

Davidek erantzun zion:

–Hona hemen erregearen lantza. Betor honaino mutilen bat eta har beza. Nori berea emanen dio Jaunak, bere zuzentasun eta leialtasunaren arabera. Jaunak nire esku utzi zaitu gaur, baina ez diot eskurik erantsi nahi izan Jaunaren gantzutuari.

Jaunak esana.

SALMOA

Salmoa 102, 1-2. 3-4. 8 y 10. 12-13

R.

Bihozbera eta errukiorra da Jauna

Bedeinka beza ene arimak Jauna,
ene barren osoak haren izen santua!

Bedeinka beza ene arimak Jauna,
ez bitza ahaztu haren mesedeak! **R.**

Erru guztiak barkatzen dizkit,
gaitz guztiak sendatzen;
bizia Herio Leizetik ateratzen dit,
maitasun eta errukiz inguratzen nau. **R.**

Bihozbera eta errukiorra da Jauna,
haserregaitza eta onginahiz betea.

Ez gaitu erabiltzen gure bekatuek merezi bezala,
ez digu ordaintzen geure erruen arabera. **R.**

Nola ekialdea mendebaldetik urruti,
hala ditu hark gure hobenak beregandik urruntzen.

Nola aita seme-alabentzat errukior,
hala Jauna begirune diotenentzat errukior. **R.**

BIGARREN IRAKURGAIA

Lurtarraren irudiko garen bezala, zerutarraren irudiko ere izango gara.

San Paulo Apostoluak Korintoarrei egindako lehenengo gutunetik 15,45-49

Honela dio, hain zuzen, Liburu Santuak: lehenengo gizakia, Adam, izaki bizidun bilakatu zen; azkeneko Adam, berriz, Espiritu bizi-emaila. Ez zen espirituzkoa izan lehenengoa, haragizkoa baizik; espirituzkoa ondoren dator. Lehenbiziko gizakia lurreko hautsetik hartua izan zen; bigarrena, berriz, zerutik dator. Lurtarra, Adam, lurtarren eredu eta irudi da; zerutarra, Kristo, zerutarrena. Eta lurtarraren irudiko garen bezala, zerutarraren irudiko ere izango gara.

Jaunak esana.

Aleluia Jn 13, 34

Aleluia, aleluia.

Agindu berri bat ematen dizuet: elkar maita dezazuela.

Nik maitatu zaituztedan bezala, maitatu zuek ere elkar. Aleluia.

EBANJELIOA

Izan zaitezte errukitsuak, zuen Aita errukitsua den bezala.

+ Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 6,27.-38

«Baina zuei, entzuleoi, hau diotsuet: Maitatu etsaiak, egin ongi gorroto dizuetenei, bedeinkatu madarikatzen zaituztetenak, egin otoitz izen ona kentzen dizuetenen alde.

«Masail batean jotzen zaituenari eskaini bestea ere; soingainekoa kentzen dizunari, ez ukatu soinekora ere. Eskatzen dizun edonori, eman, eta zeurea kentzen dizunari, ez bihurtarazi. Eta besteek zuei egitea nahi duzuen, egin zuek ere besteei.

«Maite zaituztetenak bakarrik maite badituzue, zer esker on zor zaizue? Bekatariek ere maite dituzte beren maitaleak. Eta ongi egiten dizuetenei bakarrik egiten badiezue ongi, zer esker on zor zaizue? Bekatariek ere egiten dute beste horrenbeste. Eta ordaina hartzekotan bakarrik ematen baduzue maileguz, zer esker on zor zaizue? Bekatariek ere aurreratu ohi diote elkarri, beste hainbeste hartzekotan. Ez! Zuek maitatu etsaiak, egin ongi eta eman maileguz ordainari begiratu gabe: handia izango da zuen saria eta Goi-goikoaren seme-alaba izango zarete, ona baita bera esker txarreko eta gaiztoentzat. Izan zaitezte errukitsuak, zuen Aita errukitsua den bezala.

«Ez gaitzetsi inor eta Jainkoak ere ez zaituzte gaitzetsiko; ez kondenatu inor eta Jainkoak ere ez zaituzte kondenatuko; barkatu, eta Jainkoak ere barkatuko dizue; eman, eta emango dizue: neurri betea, sakatua, estutua eta leporainokoa emango dizue altzora. Izan ere, zuek zein neurriz neurtu, halakoaz neurtuko zaituzte Jainkoak».

Jaunak esana.

Blog: <https://homiliaspagola.blogspot.com/>